

Eskakizunak

- Lanbide-modulu batean matrikutatuta egotea
- Gutxienez 365 egun kotizatutak lan-bizitzan, lanbide-moduluko salbuespena eskatzen den heziketa-zikloarekin zerikusia dituzten lanak egiaztatuz.

Lan-esperientziaren egiaztatpena

Lan-esperientziaren bidez hartutako lanbide-konpetentziak egiaztatzeari buruzko uztailaren 17ko 1224/2009 Errege Dekretuaren 12. artikuluan xedatutakoaren arabera justifikatuko da lan-esperientzia.

a. Soldatako langileak:

- Gizarte Segurantzako Diruzaintza Orokorraren, Itsasoko Gizarte Institutuaren edo afiliatutako mutualitatearen ziurtagiria, enpresaren izena, lan-kategoria (kotizazio taldea) eta kontratazio-aldia jasota dauzkana; eta, era berean, lan-esperientzia zer enpresatan eskuratu duen, enpresa horren lankontratua
- edo ziurtagiria, kontratuaren iraupena, egindako jarduera eta jarduera hori egiten emandako denbora espezifikoki ageri direna.

b. Langile autonomoak edo norberaren konturako langileak:

- Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorraren edo Itsasoko Gizarte Institutuaren ziurtagiria, jasota dauzkana Gizarte Segurantzaren dagokion araubide berezian alta-egoeran egon den aldiak, egindako jarduerak eta jardunean emandako denbora-tartea.

c. Borondatezko langileak edo bekadunak:

- Laguntza eman dioten erakundearen ziurtagiria. Bertan, hauek jasoko dira zehazki: egindako jarduerak eta funtzioak, horiek egin dituzten urtea eta eskainitako guztizko ordukopurua.

Eskaera-epea

Baldintzak betetzen dituzten ikasleek: Irailaren 28a

Ikasturte akademikoaren zeharreko egun minimoak betetzen dituzten ikasleak: eskatu ahal izango du baldintza betetzen duen unean, nolana ere, LPko aldiaren hasieraren zazpi eguneko aurrerapenaz.

Dokumentazio eskaera

- NAN/AIZko fotokopia
- Salbuespenaren eskaerako betetako inprimakia
- Lan-esperientzia ziurtatzen duen dokumentazioa.

Ikasle eta tutoreei komunikazioa

Ikasleek bere salbuespenaren erabakia jasoko dute tutorearen bidez (LPko tutorea taldeko tutorea ez denean kasuan, honi ere komunikatuko diogu)

Kalifikazioa

Salbuespenaren aldeko erabakia lortzen duten ikasleek, "SALBUETSIK" bezala kalifikatuko dira (EX).

